BESTELAKO XEDAPENAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

3470

EBAZPENA, 2014ko uztailaren 22koa, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiarena, «Donostiako Martutene auzoan Urumea ibaia uholdeetatik babesteko proiektu aldatua. 1 fasearen xehatua» jendaurrean jartzeko izapidea ebatzi eta behin betiko onespena ematen diona.

Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiak 2013ko abenduaren 16an emandako Ebazpenaren bitartez, «Donostiako Martutene auzoan Urumea ibaia uholdeetatik babesteko proiektu aldatua. 1 fasearen xehatua»-ri hasierako onespena eman zitzaion, Ingurumenaren gaineko Eraginaren Azterketarekin batera, eta jendaurreko kontsultan jarri zen.

Ebazpen hau Euskal Herriko Argitaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2014ko urtarrilaren 7an, eta Donostiako udaletxeko iragarki-taulan agerian egon zen 2013ko abenduaren 26tik 2014ko otsailaren 12rarte. Behin jendaurrean jartzeko epea bukatuta, 21 alegazio aurkeztu dira, Uraren Euskal Agentziak guztiak erantzun dituela.

Ingurumen Administrazioaren zuzendariak 2014ko uztailaren 17an emandako Ebazpenaren bitartez proiektu honen ingurumen-inpaktuaren adierazpena aldekoa da.

Halaber, proiektua aztertu eta aldeko txostena emanda dago, teknikoki zuzena dela eta alorreko legeri berezia betetzen duela egiaztatu da, bai eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 123. artikulua eta indarrean dauden bestalako legezko xedapenak.

2010eko ekainaren 29ko Administrazio Kontseiluaren saioan emandako eginkizunen eskuordetza betez, Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legeko 13.f) artikuluari jarraituz, lege bereko 15.m) artikuluaren eta Agentziako 7.2.p) artikuluaren arabera, zuzendari nagusiari dagokio proiektu honen onespena.

Hori aintzat harturik, jendaurrean jartzeko izapidea ebatzi eta behin betiko onespena eman behar da.

Horiek horrela, aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainontzekoak ikusirik,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.– «Donostiako Martutene auzoan Urumea ibaia uholdeetatik babesteko proiektu aldatua. 1 fasearen xehatua» jendaurrean jartzeko izapidea ebaztea.

Bigarrena.– «Donostiako Martutene auzoan Urumea ibaia uholdeetatik babesteko proiektu aldatua. 1 fasearen xehatua» behin betiko onestea, kontratarako aurrekontua hau dela: hogeita lau milioi zazpiehun eta hogeita hamahiru mila zazpiehun eta hiru euro eta laurogeita sei zentimo (24.733.703,86), BEZa barne dagoela.

Hirugarrena.– Uraren Euskal Agentziako teknikariek lanen zuinketa egin dezatela; bertan proiektuaren errealitate geometrikoa eta onartutako proiektuan agertzen diren kontratua aurrera eramateko oinarrizkoak diren suposizio guztiak egiaztatzeko.

Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legeko 6.4 artikuluari jarraituz, ebazpen honen kontra jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Ingurumen eta Lurralde Politikako saliburuari, ebazpena jakinarazi eta argitaratu egunaren biharamunetik hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 22a.

Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusia,
IÑIGO ANSOLA KAREAGA.